
COVID-19 DELAKOAREN ONDORIOZ EAEn ABEEE BATEN ERAGINA JASANDAKO LANGILEEN ANALISIA

**Horren eboluzioaren gaineko azterlana,
2020ko martxoa eta iraila bitartean**

**LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO
DE
RELACIONES
LABORALES**

Alda. Urquijo, 2. 3º
48008 Bilbao -
Bizkaia
T 94 479 21 00
www.crl-lhk.eus

COVID-19 DELAKOAREN ONDORIOZ EAEn ABEEE BATEN ERAGINA JASANDAKO LANGILEEN ANALISIA

- 1.- Sarrera
- 2.- Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteen eragina jasandakoak
- 3.- ABEEE baten eragina jasandako pertsonen egoera irailaren amaieran
- 4.- Kotizazio-oinarriak eta soldata-arrakala
- 5.- Ondorioak

1.- Sarrera

Txosten honen helburua da aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten eragina jasandako langileen lehen analisi bat egitea, alarma-egoera deklaratu zenetik 2020ko iraila amaitu arte Covid-19 koronabirusa agertu izanak eragindako krisiaren ondorioz.

Azterlana egiteko, Lanbidek emandako fitxategi bat ustiatu da. Izan ere, fitxategi horretan daude, aldi horretan, enplegu-erregulazioko espediente batean egoteagatik langabezia-prestazioa jaso duten pertsonen datu anonimizatuak.

Martxoaren 14an alarma-egoera deklaratu zenetik, inplikaturako administrazioen lehentasuna izan da eskura dauden baliabideekin eta ahalik eta lasterren enpresek aurkeztutako espedienteen kopurua aintzat hartzea eta kudeatzea.

Bada, emandako fitxategian eremu batzuk bete gabe dituzten erregistroak daude, eta, horren ondorioz, ezinezkoa izan da zenbait azterketa egitea, hala nola langile bakoitzak zenbat egun eman dituen ABEEEn, kontratu-mota, etab. Hala ere, horrek ez digu eragotzi aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten eraginpean egon diren pertsonak fidagarritasun-maila handiarekin ezaugarritzea.

Txosten honetan emandako datuak bat datoz Lan eta Enplegu Sailak gai horri buruz aldizka argitaratzen dituenekin. Era berean, Lanbideko Azterlan Zerbitzuak egindako beste analisi batzuetan azaldutakoen antzekoak dira.

Beste azterlan horiekiko aldaketa txikiak fitxategi desberdinak erabiltzearen ondorio dira (lan-agintaritzan aurkeztutako ABEEEn eskaerak vs. benetan ordaindutako prestazioak), edo kontsultak egiteko nahiz datuen tratamendua eta analisisa egiteko modu desberdinaren ondorio; hala ere, aldaketa horiek ez dituzte baliogabetzen txosten honetan jasotako ondorioak.

2.- Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteen eragina jasandakoak


Lanbidek bidalitako datu-fitxategiaren ustiapenaren arabera, 2020ko martxotik irailera bitartean, EAEⁿ 188.130 pertsona egon dira uneren batean langabezia-prestazioa jasotzen, enpresak aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente bat (ABEEE) aurkeztu duelako

Kontuan hartzen badugu, Eustat Euskal Estatistika Erakundearen arabera, 2019an EAEko sektore pribatuko soldatapekoak 619.100¹ izan zirela, esan daiteke **EAEko sektore pribatuko hiru langiletik ia batek (%30,4) ABEEE baten eragina izan duela uneren batean.**

Horietatik, 106.422 (%56,6) gizonak ziren, eta gainerako 81.708 (%43,4) emakumeak.

Kontuan hartzen badugu 2019an¹ sektore pribatuko soldatapeko langile guztien %53,9 gizonak zirela, eta % 46,1 emakumeak, esan daiteke aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek eragin handiagoa izan dutela gizonengan, sektore pribatuko soldatapekoen artean duten pisua ia ehuneko hiru puntu handiagoa baita.

1. GRAFIKOA- ABEEE BATEN ERAGINA JASANDAKOEN BANAKETA LURRALDEAREN ARABERA. 2020KO MARTXOA-IRAILA BITARTEAN



Iturria: Geuk egina, Lanbidek emandako datu-fitxategian oinarrituta

Lurraldeka², ABEEE baten eragina jasandakoen %18,1ek Arabako Lurralde Historikoan lan egiten zuten, %49,3k Bizkaian eta %32,6k Gipuzkoan. Kasu horretan ere alde txikiak daude sektore pribatuko soldatapeko biztanleen

¹ Eustat: 2019 urteko batez bestekoa. Sektore pribatuko soldatapeko langileak.

² Fitxategi honetan langileak lurraldeka banatuta daude euren bizilekuaren arabera, Lanbidek erabilitako irizpideei jarraikiz. Txosten honen ondorioetarako, lurralde historiko jakin batean bizi diren pertsona guztiak bertako langiletzat hartu dira.

lurreldekako banaketari dagokionez (% 15,6 Araban, %51,4 Bizkaian eta % 3 Gipuzkoan), eta intzidentzia handixeagoa du Arabako Lurrealde Historikoan.

Adin-tarteak aztertuz gero, gehien erasandako kolektiboa 25 eta 44 urte artekoa izan zen, adin-tarte horretako langile guztien ia %50 egon baitzen ABEEE baten eraginpean. 45 urtetik gorako soldatapekoak, adierazitako aldiak, ABEEEan egoteagatik prestazioren bat jaso dutenen %44,1 dira; 25 urtetik beherakoak, berriz, guztizkoaren %6,4 baino ez dira.

Adin-taldeak biztanleria landunaren profilararekin³ alderatuta, sektore pribatuan, 2019an (25 urtetik beherakoak %5, 25-44 urtekoak %50,6 eta 45 urtetik gorakoak %44,4), intzidentzia zertxobait handiagoa izan da gazteenen eta tarteko adinekoen artean.

1. TAULA- ABEEE BATEN ERAGINA JASANDAKOAK ADINAREN ARABERA BANATUTA. 2020KO MARTXOA-IRAILA BITARTEAN

25 urtetik beherakoak	12.042	%6,4
25-44 urtekoak	93.083	%49,5
45 urte edo gehiagokoak	83.005	%44,1
GUZTIRA	188.130	%100

Iturria: Geuk egina, Lanbidek emandako datu-fitxategian oinarrituta

Aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten eragina jasandakoek betetzen duten lanposturako behar duten prestakuntza-maila aztertuz gero, %47,4rako lehen mailako ikasketak behar dira, %36,4rako bigarren mailako ikasketak, eta %14,2rako goi-mailako prestakuntza.

2. TAULA- ABEEE BATEN ERAGINA JASANDAKOAK LANPOSTURAKO BEHAR DEN PRESTAKUNTZA MAILAREN ARABERA BANATUTA⁴. 2020KO MARTXOA-IRAILA BITARTEAN

Lehen mailako ikasketak	89.136	%47,4
Bigarren mailako ikasketak	68.537	%36,4
Unibertsitate-mailakoak	26.635	%14,2
Ikasketarik ez	439	%0,2
Ez da adierazten	3.383	%1,8
GUZTIRA	188.130	%100

Iturria: Geuk egina, Lanbidek emandako datu-fitxategian oinarrituta

Eskura izan diren hainbat txostenen arabera, enpresetako plantilletan lehen mailako ikasketak dituzten lanpostuen pisua %20tik beherakoa dela kontuan

³ Eustat. BJA. Sektore pribatuko biztanleria landuna, 2019.

⁴ Eskariaren bitartekotzako prestakuntza-maila izeneko fitxategiaren eremutik lortutako datua

hartuta, esan daiteke lanpostu horiek izan direla enplegu-erregulazioko espediente baten eragin handiena izan dutenak (ABEEEak eragindakoen %47,4).

Sektoreka, ABEEE baten egoteagatik prestazioren bat jaso duten pertsonen artean, %69,4k zerbitzuen sektorean lan egiten zuten, %25,6k industrian eta %4,4k eraikuntzan; %0,4k lehen sektorean ziharduen.

3. TAULA- ABEEE BATEN ERAGINA JASANDAKOAK SEKTORE EKONOMIKOAREN ARABERA BANATUTA. 2020KO MARTXOA-IRAILA BITARTEAN

JARDUERA

Nekazaritza eta Arrantza	845	%0,4
Industria	48.175	%25,6
Eraikuntza	8.317	%4,4
Zerbitzuak	130.485	%69,4
Ez da adierazten	308	%0,2
GUZTIRA	188.130	%100

Iturria: Geuk egina, Lanbidek emandako datu-fitxategian oinarrituta

Kontuan hartzen badugu 2019an ekonomiaren sektore pribatuko biztanleria landunaren %66,1ek gutxi gorabehera zerbitzuen sektorean lan egiten zuela, %27,8k industrian, %5,1ek eraikuntzan eta %1ek lehen sektorean, esan dezakegu ABEEEak eragindakoen intzidentzia zertxobait txikiagoa izan dela industrian (guztizkoaren %25,6) eta eraikuntzan (%4,4), eta zertxobait handiagoa zerbitzuen sektorean (%69,4).

Azken batean, enpresa guztiek erabili dituzte, oro har, ABEEEak, nazioartean sinkronizatutako atzeraldian eta jardueraren geldialdian, eta eragin handia izan dute, ez bakarrik zerbitzuetan, baita bigarren sektorean eta eraikuntzan ere.

Bestalde, prestakuntza gutxien duten lanpostuetan erabili dira batez ere.

3.- ABEEE baten eragina jasandako pertsonen egoera irailaren amaieran

Hilabete hauetan zehar ABEEEan egoteagatik langabezia-prestazioa kobratu duten pertsonen multzotik, iraila amaitzean %84,4 lanean ari ziren, %11,6 ABEEEan jarraitzen zuten eta 7.641 pertsona langabezian zeuden, bai kontratua amaitu zutelako, bai enpresa konkurtso-egoera batean sartu zelako edo ezagutzen ez dugun eta eskura dugun informazioarekin zehaztu ezin dugun beste edozein arrazoiengatik.

4. TAULA- ALDI BATERAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTE BATEN ERAGINA JASANDAKOAK IRAILAREN AMAIERAN, SEXUAREN ARABERA BANATUTA

Zenbat pertsona Martxoa-Iraila	IRAILEKO EGOERA			Guzt.	IRAILEKO EGOERA (%)		
	Lanean	Lang.	ABEEE		Lanean	Lang.	ABEEE
Gizonak 106.422	92.195	3.708	10.519	%100	%86,6	%3,5	%9,9
Emak. 81.708	66.557	3.933	11.218	%100	%81,5	%4,8	%13,7
Guztira 188.130	158.752	7.641	21.737	%100	%84,4	%4,1	%11,6

Iturria: Geuk egina, Lanbidek emandako datu-fitxategian oinarrituta

Sexuaren arabera, gizonak lehentxoago itzuli dira euren lanpostuetara emakumeak baino; izan ere, emakumeek gizonak baino proportzio handiagoan jarraitzen dute aldi hori amaitzean, izan ABEEEan (%13,7 vs. %9,9), izan langabezia-egoeran (%4,8 vs. %3,5)

Zergatik gertatu den horrela? Bada, jarraian ikusiko dugunez, industrian eta eraikuntzan, argi eta garbi gizonak nagusi diren sektoreetan, laneratzea askoz ere azkarragoa izan delako; aldiz, zerbitzuetan, non emakumeen enplegua handiagoa den, laneratze-tasa baxuagoak izan dira iraila amaitzean.

Sektoreka, industrian (%92,2) eta eraikuntzan (%88,2) daude laneratze-tasa handienak. Sektore horietan, pandemiaren faserik akutuen igaro ondoren, askoz ere eragin txikiagoa izango lukete osasun-agintariek ezarritako urruntze-neurriek, nahiz eta horien eraginpean jarraitu, herrialde eta sektore gehienei eragiten dien krisi-egoeraren ondorioz eskaerek behera egin dutelako.

5. TAULA- ALDI BATERAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTE BATEN ERAGINA JASANDAKOAK IRAILAREN AMAIERAN, SEKTOREAREN ARABERA BANATUTA

Zenbat pertsona Martxoa-Iraila	IRAILEKO EGOERA			Guzt.	IRAILEKO EGOERA (%)		
	Lanean	Lang.	ABEEE		Lanean	Lang.	ABEEE
Nek. eta Arran. 845	705	36	104	%100	%83,4	%4,3	%12,3
Industria 48.175	44.413	691	3.071	%100	%92,2	%1,4	%6,4
Eraikuntza 8.317	7.333	212	772	%100	%88,2	%2,5	%9,3
Zerbitzuak 130.485	106.277	6.579	17.629	%100	%81,4	%5,0	%13,5
Ez da adieraz. 308	24	123	161	%100	%7,8	%39,9	%52,3
GUZTIRA 188.130	158.752	7.641	21.737	%100	%84,4	%4,1	%11,6

Iturria: Geuk egina, Lanbidek emandako datu-fitxategian oinarrituta

Aitzitik, zerbitzuetan itzuli dira langile gutxien euren lanpostuetara (%81,4), eta bertan dago ABEEEan egotetik langabezia-egoerara igaro direnen ehunekorik altuena (%5).

Lehen sektoreari dagokionez, aipatu behar da sektore horretan daudela batez bestekotik hurbilen; bai lanpostura itzulitakoen tasa (%83,4), bai azkenean langabezian daudenena (%4,3), bai ABEEEan jarraitzen dutenena (%12,3). Nekazaritza eta arrantzako sektorean, 845 dira ABEEEa jasandakoak, guztizkoaren %0,4.

Industria-sektorean, enplegu-bolumena kontuan hartuta, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batek eragindako pertsonen artean, lanera itzulitakoen tasarik txikienak paperaren eta arte grafikoen sektorean daude, batez ere arte grafikoen azpisektorean, non irailaren amaieran %17,6k jarraitzen baitzuen ABEEEan; eta laneratu direnen tasa txikia da "gainerako industria" epigrafean sartutako zenbait azpisektoretan ere, hala nola elikagaien industrian, ziur aski ostalaritzan eta jatetxeetan jarduerak izandako beherakadaren ondorioz, eta baita altzarigintza-industrietan ere.

Hala eta guztiz ere, industria kimikoan eta siderometalurgian, batez bestekotik gorakoa da lanera itzulitakoen ehunekoa, eta langabezian amaitu dutenen ehunekoak ere txikiagoak dira.

Zerbitzuen sektorearen barruan nabarmendu behar da ostalaritza eta jatetxeak izan direla kaltetuenak. Hala, ABEEEan egon ondoren lanean ari diren langileen ehunekoa (%76,5) txikiagoa da hirugarren sektoreko (%81,4) eta sektore guztietako (%84,4) batez bestekoa baino, eta handiagoa da, halaber, irailaren amaieran ABEEEan dauden ehunekoa (%17,5).

Argi dago zerbitzuen sektorean, eta horren barruan ostalaritzan eta jatetxeetan, eragin handia izan dutela urruntze sozialaren neurriek, eta pandemiak aldaketa bat eragin ahal izan duela herritarren ohituretan. Goiz da oraindik aldaketa hori ebaluatzeko, baina, zalantzarik gabe, sektore horretako enpleguari eragin dio.

6. TAULA- ALDI BATERAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTE BATEN ERAGINA JASANDAKOAK IRAILAREN AMAIERAN, SEKTOREAREN ARABERA BANATUTA

Zenbat pertsona Martxoa-Iraila		IRAILEKO EGOERA			IRAILEKO EGOERA (%)			
		Lanean	Lang.	ABEEE	Guztira	Lanean	Lang.	ABEEE
Nek. eta Arran.	845	705	36	104	%100	%83,4	%4,3	%12,3
Industria	48.175	44.413	691	3.071	%100	%92,2	%1,4	%6,4
I. Erauzketak	95	77	1	17	%100	%81,1	%1,1	%17,9
Papera Art. Grafik.	1.440	1.157	30	253	%100	%80,3	%2,1	%17,6
I. Kimika	5.734	5.524	60	150	%100	%96,3	%1,0	%2,6
I. Siderometalurg.	33.800	31.599	396	1.805	%100	%93,5	%1,2	%5,3
Gainerako indus.	7.106	6.056	204	846	%100	%85,2	%2,9	%11,9
Eraikuntza	8.317	7.333	212	772	%100	%88,2	%2,5	%9,3
Zerbitzuak	130.485	106.277	6.579	17.629	%100	%81,4	%5,0	%13,5
Merkataritza	36.199	30.652	1.100	4.447	%100	%84,7	%3,0	%12,3
Ostal. eta Jatetx.	29.936	22.903	1.795	5.238	%100	%76,5	%6,0	%17,5
Gainerako zerbitz.	64.350	52.722	3.684	7.944	%100	%81,9	%5,7	%12,3
Ez da adierazten	308	24	123	161	%100	%7,8	%39,9	%52,3
GUZTIRA	188.130	158.752	7.641	21.737	%100	%84,4	%4,1	%11,6

Iturria: Geuk egina, Lanbidek emandako datu-fitxategian oinarrituta

Adin-tarteen arabera, ikusten dugu laneratze-tasak gora egiten duela adinarekin, eta adinarekin ere behera egiten duela azkenean langabezian amaitzen duten pertsonen ehunekoak.

7. TAULA- ALDI BATERAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTE BATEN ERAGINA JASANDAKOAK IRAILAREN AMAIERAN, ADINAREN ARABERA BANATUTA

Zenbat pertsona Martxoa-Iraila		IRAILEKO EGOERA			IRAILEKO EGOERA (%)			
		Lanean	Lang.	ABEEE	Guztira	Lanean	Lang.	ABEEE
25 urtetik behera	12.042	8.075	2.819	1.148	%100	%67,1	%23,4	%9,5
25-44 urte bitart.	93.083	79.304	3.172	10.607	%100	%85,2	%3,4	%11,4
45 urte edo geh.	83.005	71.373	1.650	9.982	%100	%86,0	%2,0	%12,0
GUZTIRA	188.130	158.752	7.641	21.737	%100	%84,4	%4,1	%11,6

Iturria: Geuk egina, Lanbidek emandako datu-fitxategian oinarrituta

Hain zuzen ere, 25 urtetik beherakoa da laneratze-tasa txikiena duen kolektiboa, eta gazteen artean dago, halaber, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batetik igaro ondoren azkenean langabezian amaitzen dutenen ehuneko handiena, ziurrenik aldi baterako kontratua amaitu zaielako, nahiz eta baieztapen hori jasateko ebidentziarik ez dugun, eta alde batera utzita gazteen artean, oro har, behin-behinekotasun-tasa handiagoa dela (% 77)⁵.

⁵ 2019 urtea. BJA urteko batez bestekoa. Soldatapeko 16 urteko eta gehiagoko biztanleen behin-behinekotasunaren tasa (kooperatibistak izan ezik).

Lurraldeka, berriro laneratzearen ehunekoa batez bestekoa baino altuxeagoa da Gipuzkoan, eta batez bestekoa baino txikiagoa Bizkaian. Hala ere, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batetik igaro ondoren langabezian dauden langileen ehunekoa ia berbera da hiru lurraldeetan.

8. TAULA- ALDI BATERAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTE BATEN ERAGINA JASANDAKOAK IRAILAREN AMAIERAN, LANPOSTURAKO BEHAR DEN IKASKETA-MAILAREN ARABERA

Zenbat pertsona Martxoa-Iraila	IRAILEKO EGOERA			IRAILEKO EGOERA (%)				
	Lanean	Lang.	ABEEE	Guztira	Lanean	Lang.	ABEEE	
Lehen mail.	89.136	74.858	3.808	10.470	%100	%84,0	%4,3	%11,7
Bigarren mail.	68.537	58.353	2.714	7.470	%100	%85,1	%4,0	%10,9
Unibertsitat.	26.635	22.420	982	3.233	%100	%84,2	%3,7	%12,1
Ikask. gabe	439	369	21	49	%100	%84,1	%4,8	%11,2
Ez da adieraz.	308	24	123	161	%100	%81,3	%3,4	%15,2
GUZTIRA	188.130	158.752	7.641	21.737	%100	%84,4	%4,1	%11,6

Iturria: Geuk egina, Lanbidek emandako datu-fitxategian oinarrituta

Beren egoera aztertuz gero betetzen dituzten lanpostuetarako behar den ikasketa-maila kontuan hartuta⁶, esan behar da ez dagoela alde handirik lanera itzulitakoen ehunekoari dagokionez, horiek guztiak %84,4ko batez bestekotik oso gertu baitaude.

9. TAULA- ALDI BATERAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTE BATEN ERAGINA JASANDAKOAK IRAILAREN AMAIERAN, LURRALDEAREN ARABERA

Zenbat pertsona Martxoa-Iraila	IRAILEKO EGOERA			IRAILEKO EGOERA (%)				
	Lanean	Lang.	ABEEE	Guztira	Lanean	Lang.	ABEEE	
Álava/Araba	34.008	29.093	1.414	3.501	%100	%85,5	%4,2	%10,3
Bizkaia	92.727	76.484	3.791	12.452	%100	%82,5	%4,1	%13,4
Gipuzkoa	61.395	53.175	2.436	5.784	%100	%86,6	%4,0	%9,4
TOTAL	188.130	158.752	7.641	21.737	%100	%84,4	%4,1	%11,6

Iturria: Geuk egina, Lanbidek emandako datu-fitxategian oinarrituta

Ondorio gisa, zera esan daiteke, iraila amaitzean, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek eragindako pertsonen %84,4 lanean hasi zirela jada, %11,6k ABEEEtan jarraitzen zutela, eta %4,1ek, azkenik, langabezian amaitu dutela.

Laneratzeko-ehunekoa handiagoa izan da industrian (%92,2) eta eraikuntzan (%88,2) zerbitzuetan (%81,4) baino, eta zertxobait handiagoa gizonena emakumeena

⁶ Datu hau lortu dugu, hain zuzen ere, eskariaren bitartekotzako prestakuntza-maila izeneko fitxategitik

baino, ziur asko gizonen presentzia handiagoa dutelako industrian eta eraikuntzan, sektore horietan laneratze-ehunekoa handiagoa izan baita.

Adinaren arabera, aipatu behar da laneratze-tasa txikiena gazteena dela (25 urtetik beherakoak), eta kolektibo horren barruan amaitu dutela langile gehienek langabezia-egoeran, ABEEE batetik igaro ondoren.

4.-Kotizazio-oinarriak eta soldata-arrakala

Fitxategiak, halaber, aukera ematen digu ABEEE egoeran egoteagatik prestazio bat kobratu duten pertsonen hileko kotizazio-oinarriak aztertzeko. Oinarri horiek erabiliko lirateke langabezia-prestazioa kalkulatzeko, legez ezarritako mugekin.

Adierazi behar da kotizazio-oinarriak direla bidalitako fitxategian agertzen direnak, eta ezin izan direla bereizi lanaldi osoan lan egiten dutenak eta lanaldi partzialean lan egiten dutenak.

10. TAULA- ALDI BATERAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTE BATEN ERAGINA JASANDAKOEN KOTIZAZIO-OINARRIAK, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA

	Batez beste	Gizonak	Emakumeak	Soldata- arrakala
Guztira	1.990	2.299	1.589	%30,9
Adin-tarteak				
25 urtetik behera	957	1.083	821	%24,2
25 eta 44 bitartean	1.935	2.204	1.599	%27,5
45 urte edo gehiago	2.203	2.556	1.705	%33,3

Iturria: Geuk egina, Lanbidek emandako datu-fitxategian oinarrituta

Hileko kotizazio-oinarria, batez beste, 1.990 eurokoa da, hain zuzen ere, 2.299 eurokoa gizonen kasuan, eta 1.589 eurokoa emakumeen kasuan; beraz, soldata-arrakala %30,9koa da.

Alde horretatik, gogorarazi behar da lanaldi partzialak soldatapeko biztanleen artean duen eragina askoz handiagoa dela emakumeen kasuan. Zehazki, EUSTATen arabera, soldatapeko emakumeen %30 inguruk lanaldi partzialean lan egiten du, eta gizonen kasuan, ehuneko hori %10ekoa da.

ABEEEk eragindako pertsonen soldata-arrakala (%30,9) EAEko batez besteko soldata-arrakala baino handiagoa da; izan ere, 2018an, oro har, %22,6koa⁷ izan zen. Bada, azpimarratzekoa da aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten eragina jasandakoak ekonomiaren sektore pribatuko soldatapekoak direla, non soldata-arrakala handiagoa den administrazio publikoan baino, azken hau Estatuan %10,7 ingurukoa⁸ baita.

Kotizazio-oinarriek gora egiten dute ABEEEA jasandako pertsonaren adina igotzen den heinean, eta txikiak 25 urtetik beherakoenak dira. Era berean, adin-tarte horretan dago soldata-arrakala txikiena.

⁷ EIN. Soldata Egiturari Buruzko Urteko Inkesta. EAE. Langile baten urteko batez besteko irabazia.

⁸ EIN. Soldata Egiturari Buruzko Urteko Inkesta. 2018ko datuak. Doitu gabeko soldata-arrakala gordina langileon artean, aintzat hartuta EJSN sailkapeneko O atalekoak: Herri Administrazioa eta defentsa; Derrigorrezko Gizarte Segurantzza.

11. TAULA- ALDI BATERAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTE BATEN ERAGINA JASANDAKOEN KOTIZAZIO-OINARRIAK, LANPOSTURAKO BEHAR DEN IKASKETA-MAILAREN ARABERA

	Batez beste	Gizonak	Emakumeak	Soldata- arrakala
Guztira	1.990	2.299	1.589	30,9%
Lehen mailakoak	1.872	2.157	1.436	33,4%
Bigarren mailakoak	2.019	2.371	1.566	33,9%
Unibertsitatekoak	2.297	2.704	1.986	26,6%
Ikasketarik gabe	2.480	2.748	1.743	36,6%
Ez da adierazten	2.033	2.327	1.624	30,2%

Iturria: Geuk egina, Lanbidek emandako datu-fitxategian oinarrituta

Lanposturako behar den ikasketa-maila kontuan hartuta, soldata-arrakalari dagokionez alderik handienak ikasketarik gabeko pertsonen (%36,6) eta goi-mailako prestakuntzako lanpostuetan dauden adingabeen (%26,6) artean daude.

Aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente bat jasandako pertsonen kopuruaren banaketa aztertzen baldin badugu oinarri arautzailearen zenbatekoa kontuan hartuta, ikusiko dugu 1.001 eurotik 2.500 eurora bitarteko oinarriak dituztenak kaltetu guztien %57,3 direla.

Era berean, adierazi behar da ABEEEEk eragin txikiagoa izan dutela ordainsari handia duten pertsonen artean, kontuan hartzen badugu, Soldata Egiturari buruzko Urteko Inkestaren emaitzen arabera, EAEko soldatapeko biztanleen kuartil gorenak (%25) 3.183 eurotik gorako soldata duela, eta aztertutako aldian 3.000 eurotik gorako soldata dutenen artean ABEEEE batek eragindakoak guztizkoaren %17,6 direla.

12. TAULA- ALDI BATERAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTE BATEN ERAGINA JASANDAKOEN BANAKETA, OINARRI ARAUTZAILEAREN ZENBATEKOAREN ARABERA

	Guztira, ABEEEA jasandakoak	% guztizkoarekiko
OINARRI ARAUTZ.	188.130	%100
600€-ra arte	12.727	%6,8
601€-1.000€ bitartean	16.144	%8,6
1.001€-1.600€ bitartean	42.871	%22,8
1.601€-2.000€ bitartean	36.248	%19,3
2.001€-2.500€ bitartean	28.577	%15,2
2.501€-3.000€ bitartean	18.453	%9,8
3.001€-3.500€ bitartean	13.836	%7,4
3.500€-tik gora	19.274	%10,2

Iturria: Geuk egina, Lanbidek emandako datu-fitxategian oinarrituta

Oinarri arautzaileen banaketa aztertzean, egiaztatu dugu zenbateko txikiagoko oinarri arautzaileetan emakumeen presentzia handiagoa dela, eta kotizazio-oinarri handienetan, aldiz, gizonen parte-hartzea handiagoa dela.

Zergatik gertatzen den hori? Bada, hain zuzen ere, soldata-arrakalaren ondorioz, izan ere, neurri batean, lanaldi partzialeko kontratuetan emakumeek presentzia handiagoa dute, eta ordainsari handienak dituzten lanpostuetan, txikiagoa.

13. TAULA- ALDI BATERAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTE BATEN ERAGINA JASANDAKOEN BANAKETA, OINARRI ARAUTZAILEAREN ARABERA

	Guztira, ABEEEa jasandakoak %100	Gizonak %56,6	Emakumeak %43,4
OINARRI ARAUTZ.			
600€-ra arte	%100	%33,8	%66,2
601€-1.000€ bitartean	%100	%28,3	%71,7
1.001€-1.600€ bitartean	%100	%40,2	%59,8
1.601€-2.000€ bitartean	%100	%55,6	%44,4
2.001€-2.500€ bitartean	%100	%66,7	%33,3
2.501€-3.000€ bitartean	%100	%73,8	%26,2
3.001€-3.500€ bitartean	%100	%81,3	%18,7
3.500€-tik gora	%100	%84,3	%15,7

Iturria: Geuk egina, Lanbidek emandako datu-fitxategian oinarrituta

Jarraian, ABEEE bat jasandakoak eta batez besteko oinarri arautzailea azaltzen dira, sektorearen arabera sailkatuta.

14. TAULA- ALDI BATERAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTE BATEN ERAGINA JASANDAKOAK ETA BATEZ BESTEKO KOTIZAZIO-OINARRIAK, SEKTOREAREN ARABERA

JARDUERA	Pertsonak	Oinarri arautzailea
Nekazaritza eta Arrantza	845	1.758
Industria	48.175	2.753
Eraikuntza	8.317	2.083
Merkataritza	36.199	1.857
Ostalaritza	29.936	1.437
Gainerako zerbitzuak	64.350	1.746
Ez da adierazten	308	1.431
GUZTIRA	188.130	1.990

Iturria: Geuk egina, Lanbidek emandako datu-fitxategian oinarrituta

15. TAULA- ALDI BATERAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTE BATEN ERAGINA JASANDAKOEN KOTIZAZIO-OINARRIAK, SEKTOREAREN ETA SEXUAREN ARABERA

JARDUERA	Batez best.			
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Soldata-arrakala
	1.758	1.823	1.488	%18,4
Nek. eta Arran.				
Industria	2.753	2.856	2.335	%18,3
Eraikuntza	2.083	2.112	1.923	%8,9
Merkataritza	1.857	2.166	1.576	%27,2
Ostalaritza	1.437	1.563	1.340	%14,3
Gainerako zerbitz.	1.746	2.030	1.503	%25,9
Ez da adierazten	1.431	1.695	1.049	%38,1
Guztira	1.990	2.299	1.589	%30,9

Iturria: Geuk egina, Lanbidek emandako datu-fitxategian oinarrituta

Oinarri arautzailerik handienak (batez beste) industriari eta eraikuntzari dagozkie, eta txikienak ostalaritzari eta gainerako zerbitzuei. Dagoen soldata-arrakalari dagokionez, sektoreen artean eraikuntzako %8,9aren eta merkataritzako %27,2aren artean dago.

16. TAULA- ALDI BATERAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTE BATEN ERAGINA JASANDAKOEN KOTIZAZIO-OINARRIAK. EGOERA 2020/09/30EAN

Lanean	Batez besteko kotizazio-oinarria			
	Zenbat pertsona	Batez b. Guztira	Gizonak	Emakumeak
	158.752	2.067	2.375	1.639
Langabezian				
	7.641	1.031	1.185	885
ABEEEan				
	21.737	1.770	2.017	1.539

Iturria: Geuk egina, Lanbidek emandako datu-fitxategian oinarrituta

Era berean, 2020/09/30ean jada lanean ari zirenen, langabezia-egoerara igaro zirenen edo oraindik ABEEEan zeuden pertsonen batez besteko kotizazio-oinarriak kalkulatu dira.

16. taulan ikus daitekeenez, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batetik igaro ondoren azkenean langabezian amaitu duten pertsonak kotizazio-oinarri nabarmen txikiagoa dute; izan ere, beren kotizazio-oinarria ABEEE batetik igaro ondoren lanean ari direnen erdia da.

Logikoa dirudien bezala, onartzen baldin badugu kualifikazio edo eskarmentu txikiena duten langileak ordainsari txikiena jasotzen dutenak direla (oinarri baxuenak), ondoriozta daiteke langile horiek izan direla, hein handienez, ABEEE batetik langabeziara igaro direnak.

Azkenik, azpimarratzeko modukoa da uztailearen 1etik irailaren 30era bitartean, 1.667 euroko oinarri arautzailea (20.000€ urtean) zutenen artean, 9.700 pertsona baino zertxobait gutxiago egon zirela uneren batean ERTE egoeran. Elkarrizketa Sozialeko Mahaian adostutako osagarria eskura lezaketen pertsonen kopurutik hurbil dago.

5.- Ondorioak

1.- Txosten honen helburu zuzena da lehen hurbilketa bat egitea martxotik irailera bitartean ABEEE baten bidez langabezia-prestazioa jaso duten pertsonen kopurura. Covid 19k lan-kontratua eteten duen kasuetarako prestazio hori jasotzeko baldintzak legez malgutu izanak esan nahi du, akatserako tarte esanguratsurik gabe, 188.130 pertsonari eragin ziela noizbait Euskal Autonomia Erkidegoan aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batek.

2.- Azterketa hau Lanbidek emandako fitxategi bat ustiatu ondoren egin ahal izan da, baina erabilitako iturriak ezin du zehaztu, banakako jarraipenik gabe, pertsona batek Covidagatik ABEEE batean zenbat denbora eman duen.

Hori dela eta, ABEEE-en bilakaerari buruzko hurbilketa bat egiteko, 2020ko irailaren amaieran zegoen egoera hartu da erreferentzia konparatibo gisa, eta hiru kasu bereizi dira: lan-jarduerara itzuli ziren pertsonak, ABEEEn zeuden pertsonak eta lan-harremana amaitzeagatik langabezia zeuden pertsonak.

3.-Iraila amaitu zenean, pertsona horien %12k (21.737) baino ez zuten aldi baterako enplegu-erregulazioko egoeran jarraitzen langabezia-prestazioa jasotzen, baina ez dakigu horiek guztiak egoera horretan etenik gabe egon ote ziren. Gainerakoak, edo lanera itzuli ziren, %84,4 (158.752), edo langabezia zeuden, %4,1 (7.641), eta ez dakigu lan-harremana amaitzeko arrazoi zehatza zein den ere: kontratua amaitzea, kaleratzea, enplegu-erregulazioko espedientea...

4.- Lurralde- eta sektore-aldagaiak aztertuta ez da ondorio esanguratsurik ateratzen. ABEEE-en intzidentziak lurraldeka eta sektoreka EAeko sektore pribatuko biztanleria landunaren banaketa ia erreplikatzeko du, eta zertxobait igo da bere pisu erlatiboarekiko, zerbitzuen sektorearen pisu erlatiboarekiko eta Arabako Lurralde Historikoaren pisu erlatiboarekiko, kaltetutako pertsonen kopuruan.

5.- Aldiz, ABEEE-en intzidentzia eta bilakaera adin-tartean arabera aztertuta, orduan bai, ondorio garrantzitsu batzuk ateratzen dira. Izan ere, noizbait ABEEE batek erasandako 25 urtetik beherako pertsonen ehuneko %6,5koa izan zen (12.042, 188.130 urtearekiko), eta ehuneko hori biztanleria landunaren pisu erlatiboarekiko oso baliokidea da. Aitzitik, irailaren amaieran lanpostua galdu zuten 25 urtetik beherako pertsonak guztizkoaren %38ra iristen dira (2.819, 7.641etik).

Hori azaltzeko askotariko faktoreak egon daitezkeen arren, oso litekeena da horietako bat izatea 25 urtetik beherako biztanleen artean dagoen behin-behinekotasun tasa handia.

6.- Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetan dauden pertsonen kotizazio-oinarriei buruzko datuak ere adierazle baliotsua dira emakumeen eta gizonen ordainsarrietan dauden aldeak azaltzeko. ABEEEn jasandakoen kotizazio-oinarria 1.990 eurokoa izan zen, baina sexuen arteko alde erlatibo handiekin:

emakumeen kotizazio-oinarria (1.589) gizonena (2.299) baino %30 txikiagoa da, betiere batez besteko balioetan.

Ekonomiaren sektore pribatuaren soldata-arrakala du aztergai ikerketa honek, eta arrakala horretan hainbat faktorek eragiten dute, zalantzarik gabe; esaterako, lanaldi partzialeko lanak emakumeen artean duen eragin handia, edo eragindako pertsonen banaketa sektoreka. Zerbitzuen sektorean pisu handixeagoa dute, feminizatuagoa delako, eta batez besteko ordainsariak (eta kotizazio-oinarriak) industria-sektorekoak eta eraikuntzakoak baino txikiagoak direlako.

Alde horretatik, bereziki adierazgarria da beheko mailan (1.000 eurorainoko kotizazio-oinarria, non lanaldi partzialeko lan-kontratuen ehuneko handi bat biltzen baita) enplegu-erregulazioa jasandakoen banaketa sexuka zera izatea, gutxi gorabehera, emakumeen %70ekoa eta gizonen %30ekoa; tarte handienetan, berriz, hileko kotizazio-oinarria 3.000 eurotik gorakoa den horietan, emakumeen ehunekoa ez da %18ra iristen.

7.- Logikoa dirudien bezala, ABEEE bat jasandakoen kotizazio-oinarriak handitu egiten dira adinean aurrera egin ahala. Hala ere, sexuen arteko ordainsari-aldeak murriztu egiten dira.

8.- Era berean, adierazi behar da aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek eragin txikiagoa izan dutela ordainsari altuko pertsonen artean (3.000 eurotik gorako kotizazio-oinarriak), eta azpimarratzekoa da enplegu-erregulazioko espediente batetik azkenean langabeziara pasa direnen kotizazio-oinarria beren lanpostura itzuli direnena baino nabarmen txikiagoa dela.